




sormen egonaldiak

2023/1



Argazkia: Bea Pastor

Sormena babes!

Azpeitiko Kulturaz Kultur Kooperatibak hasieratik babestu izan du sortzaileen jarduna. Azken urteotako esperientziaren ostean eta Dinamoa sormen gunearen abaroan sormen egonaldi hauen deialdia ondu dugu diziplina orotariko sortzaileei baliabideak eskaini eta bidea egiten laguntzeko.

DEIALDIEN OINARRIZKO INFORMAZIOA

- > Hiru egonaldi mota: #harri (osoa), #orri (sinplea) eta #ar (antzerkia).
- > Urtean bi deialdi:
 - 1. deialdia: eskaera epea 2023ko otsailaren 24tik martxoaren 19ra izango dira eta egonaldiak martxoaren hasieratik uztailaren amaierara gauzatuko dira.
 - 2. deialdia: eskaera epea 2023ko ekainaren 16tik uztailaren 16ra izango dira eta egonaldiak irail hasieratik abenduaren amaierara gauzatuko dira.
- > Tokia: Dinamoa Sormen Gunea, Azpeitia (Gipuzkoa).



NORI ZUZENDUA DAGO

Esku artean sormen proiektu bat duen sortzaile orori irekia dagoen deialdia da hau. Edozein arte-diziplinatar irekia, bakarka zein kolektiboan asmo bati sormen prozesu sakon bat eskaini nahi dionarentzat. Prozesuaren edozein fasetan egonik ere denbora eta arreta zaindua eskaini nahi dutenen eskura baliabideak nahiz babesa eskaintzea da deialdi honen asmoa.

ZER ESKAINTZEN DUGU

- > **Denbora:** gutxienez 7 egun eta gehienez 15 egun (ahal dela jarraian edo bi astetan banatuta).
- > **Espazioa:** eremuetako espazioak eta lantegiak erabiltzeko lehentasuna.
- > **Teknika:** sormen gunean dugun material teknikoa erabiltzeko aukera (serigrafia, soinu materiala, kamera, argiztapena, proiektoreak, eskanerra...).
- > **Lo lekua:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean herrian edo herritik gertu dagoen lo leku bat eskainiko zaio norbanako sortzaile edo taldeari.
- > **Otorduak:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean eguneko hiru otordu eskainiko zaizkio norbanako sortzaile edo taldeari.
- > **Komunikazioa:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean bere jarduna erregistratu eta sortzailearen esku jarriko da.
- > **Bidelaguntza:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean oinarritzko bidelaguntza bat eskainiko zaio bere sormen prozesua errazte aldera (aholkularitza, erreferentziak, bertako eragileen kontaktuak...).

ZER ESKATZEN DUGU

- > **Adostasuna eta hitzarmena:** egonaldia hasterako aurrez aipatutako beharrak adostuko dira eta bialdetako hitzarmen batean jasoko dira.
- > **Komunikazio gaietarako prestutasuna:** sortzaileak bere jarduna erregistratzeko zein komunikatzeko prestutasuna izango du (argazkiak, bideoak, elkarrizketak...).
- > **Ekarpena:** jasotakoaren trukean komunitateari zerbait eskaintzeko moduren bat adostea (tailer bat, mediazio saio bat, erakusketa bat, jardueraren batean parte hartzea...).

IZEN EMATEA

- > Epea: **2023ko otsailaren 24tik martxoaren 19ra** izango dira eta egonaldiak martxo hasieratik uztail amaierara arte gauzatuko dira.
- > Izen emate orria: <https://forms.gle/JGmZWUmz2NMZdr9>
- > Zalantzak argitzeko, harremanetarako: idatzi dinamoa@dinamoa.eus helbidera edo deitu 635 738 760 telefonora.

#orri

sormen egonaldi sinplea



NORI ZUZENDUA DAGO

Modu errazean sormen proiektu bati denbora, lekua eta baliabideak eskaini asmoz egonaldi malgu bat egin nahi duen norbanako sortzaile eta kolektiboek zuzendua dago deialdi hau. Zeinahi sormen diziplinatan eta prozesuaren edozein fasetan egonik ere babesa eta bertako azpiegituren aukerak baliatu nahi dituzten sortzaileei.

ZER ESKAINTZEN DUGU

- > **Denbora:** gutxienez 7 egun eta gehienez 90 egun.
- > **Espazioa:** eremuetako espazioak eta lantegiak erabiltzeko lehentasuna.
- > **Teknika:** sormen gunean dugun material teknikoa erabiltzeko aukera (serigrafia, soinu materiala, kamera, argiztapena, proiektoreak, eskanerra...).
- > **Diru poltsa:** 300€ko diru poltsa eskainiko zaio ekoizpenerako eta bestelako gastuetarako (joan etorriak, materiala, otorduak...).
- > **Komunikazioa:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean bere jarduna erregistratu eta sortzailearen esku jarriko da.
- > **Bidelaguntza:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean oinarritzko bidelaguntza bat eskainio zaio bere sormen prozesua errazte aldera (aholkularitza, erreferentziak, bertako eragileen kontaktuak...).

ZER ESKATZEN DUGU

- > **Adostasuna eta hitzarmena:** egonaldia hasterako aurrez aipatutako beharrak adostuko dira eta bialdetako hitzarmen batean jasoko dira.
- > **Komunikazio gaietarako prestutasuna:** sortzaileak bere jarduna erregistratzeko zein komunikatzeko prestutasuna izango du (argazkiak, bideoak, elkarrizketak...).
- > **Ekarpena:** jasotakoaren trukean komunitateari zerbait eskaintzeko moduren bat adostea (tailer bat, mediazio saio bat, erakusketa bat, jardueraren batean parte hartzea...).

IZEN EMATEA

- > Epea: **2023ko otsailaren 24tik martxoaren 19ra** izango dira eta egonaldiak martxo hasieratik uztail amaierara gauzatuko dira.
- > Izen emate orria: <https://forms.gle/BPoZ1e8hb4Ua2fdr6>
- > Zalantzak argitzeko, harremanetarako: idatzi dinamoa@dinamoa.eus helbidera edo deitu 635 738 760 telefonora.

#ar

antzerki sormen egonaldia

NORI ZUZENDUA DAGO

Euskarazko antzezlan bat landu asmoa duten antzerkigile orori zabaldutako deialdia da hau. Bakarka zein modu kolektiboan sormen prozesuaren edozein fasetan antzerki obra bat ontzen ari denari. Heuren jardunean ezinbestekoak diren lan saioak baliabide egokiekin egin ahal izateko berariaz euskarazko antzerkigintzari eskainitako deialdia da hau.

ZER ESKAINTZEN DUGU

- > **Denbora:** egonaldiaren iraupena gutxienez astebetekoa eta gehienez bi asteak izango da (bi alditan zatitu ahalko da), baina oro har sormen egonaldi osoak eta jarraiak lehenesten ditugu.
- > **Espazioa:** Egonaldian zehar Dinamoa sormen guneko Gorputzaren Eremua edo Soreasu Antzokia erabiltzeko aukera (beharren arabera).
- > **Teknika:** beharrezko baliabide teknikoak eta teknikarien zerbitzua.
- > **Lo lekua:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean herrian edo herritik gertu dagoen lo leku bat eskainiko zaio norbanako sortzaile edo taldeari.
- > **Otorduak:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean eguneko hiru otordu eskainiko zaizkio norbanako sortzaile edo taldeari.
- > **Komunikazioa:** sormen egonaldiak irauten duen bitartean bere jarduna erregistratu eta sortzailearen esku jarriko da.

ZER ESKATZEN DUGU

- > **Adostasuna eta hitzarmena:** egonaldia hasterako aurrez aipatutako beharrak adostuko dira eta bialdetako hitzarmen batean jasoko dira.
- > **Ikuskizuna:** Egonaldian zehar sortu duten ikuskizuna doan eskaintzea (katxea kobratu gabe), estreinaldia ahal bada.
- > **Mediazioa.** adostutako herriko eragile batekin mediazio elkartruke bat gauzatzea (tailerra, entsegu irekia, solasaldia edo antzeko beste ekimenen bat).
- > **Komunikazio gaietarako prestutasuna:** sortzaileak bere jarduna erregistratzeko zein komunikatzeko prestutasuna izango du (argazkiak, bideoak, elkarrizketak...).

IZEN EMATEA

- > **Epea:** 2023ko otsailaren 24tik martxoaren 19ra izango dira eta egonaldiak martxo hasieratik urte amaierara gauzatuko dira.
- > **Izen emate orria:** <https://forms.gle/X5ouSenxntakbBqJ6>
- > **Zalantzak argitzeko, harremanetarako:** idatzi abengoetxea@kulturaz.eus helbidera edo deitu 674165682 zenbakira.



www.dinamoa.eus
www.kulturaz.eus

dinamoa@dinamoa.eus

